

GRADU AMAIERAKO LANA

**Banku mugikorreko arraunean indar
entrenamenduaren ebaluaziorako erabilitako
metodologiaren analisia.**

**Espainiako selekzioari egindako ikerketa
2015-2016 denboraldi olinpikoan**



Egilea: Beñat Larrinaga Garcia (Blarrinaga005@ikasle.ehu.es)

Zuzendaria: Valentín Rocandio Cilveti

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea EHU
2015-2016 urte akademikoa

(Ekaineko deialdia)

Laburpena

Lana burutzeko arraunaren orokortasunak azaldu eta errendimendua mugatzen duten aspektuak aztertu dira. Azterketa sakon honen ostean, indarrak arraunean duen garrantzia ikusita eta indarra kontrolatzeko eta ebaluatzeko tresnak aztertu ondoren eguneroko indar lanaren praktikotasunean hutsune handi bat ikusi da. Horrexegatik, Arrauneko Espainiar Selekzioak gimnasioko indar-lana nola kontrolatzen eta ebaluatzen duten aztertu egin da. Ikerketa deskriptibo hau burutzeko, urte olinpikoaren indar planifikazioaren azterketa egin da, ondoren, bi kontzentrazio aztertu egin dira bertatik, gimnasioan egiten duten indar lanaren kontrola encoder baten bitartez eta bere Software espezifikoarekin datuak ebaluatzen dituztela ikusi da eta ebaluatzeko sistemaren metodologia azaltzen da. Amaitzeko, lortutako datuen analisi bat egiten da eta erabiltzen den metodologia positiboki ebaluatu egiten da.

Resumen

Para realizar este trabajo, se ha explicado el remo de banco móvil de un modo general y se han estudiado los factores limitantes que afectan al rendimiento de este deporte. Después de un profundo estudio, que resalta la importancia de la fuerza en el remo, se ha observado falta de información en la practicidad del día a día a la hora del control la fuerza. Por lo tanto, en este estudio se ha estudiado, el método con el cual se evalúan y controlan los entrenamientos de fuerza en la Selección Española de Remo. Para la realización de este estudio descriptivo, se ha analizado la planificación anual de la temporada olímpica 2015-2016, para después, hacer el análisis en dos periodos de concentración donde se ha podido observar y analizar la metodología de control y evaluación del entrenamiento de fuerza en el gimnasio, que se realiza mediante un encoder y los datos se analizan a través del Software específico del programa. Para terminar, se hace un pequeño análisis de los datos extraídos y se valora positivamente el sistema metodológico que utilizan.

Abstract

To make this work, we explained the rowing in a general way and studied the limiting factors that affect the performance of the sport. After a thorough study, which highlights the importance of strength in rowing, we have realized there is a lack of information on everyday practicality about force controlling. Therefore, in this study has been studied, the method with which the strength training in the Spanish Selection is evaluated and controlled. To carry out this descriptive study it has analyzed the annual planning of the Olympic season 2015-2016, to later, do the analysis in two periods of concentration where it has been possible to observe and analyze the methodology of monitoring and evaluation of strength training in the gym, which is performed by an encoder and data is analyzed through a specific software analyzes program. Finally, a short analysis of the data extracted and is done the methodological system used is positively valued.

Hitz gakoak: Strength training, Encoder, Row, Power, Remo de Banco Móvil, entrenamiento de fuerza.

Eskermenak

Lanarekin hasi aurretik, lana burutzea ahalbidetu duten pertsonen eskermena ematea beharrezkoa iruditzen zait:

Lehenengo eta behin, EHU/UPV-ko praktiken antolatzaileari, Larri-ri hain zuzen ere, eskertu nahiko nioke praktikak Espainiar selekzioan egiteko behar nuen bultzada emateagatik.

Bestalde, Julen Erauzkini, praktiketako tutoreari alegia, beti egongo naiz berarekin sorretan, emandako formakuntzagatik, lagundu didan guztiagatik eta batez ere, jasotako tratu ezin hobeagatik.

Amaitzeko, gradu amaierako lanaren Zuzendariari, Valentin Rocandio-ri, emandako laguntza eskertu nahi diot, beti egon delako laguntza emateko prest, beti lan egiteko gogoekin ikusi dudalako, eta behar izan dudanean ideiak argitu dizkidalako.

AURKIBIDEA

1	SARRERA.....	7
2	IKERKETAREN HELBURUA.....	8
3	MARKO TEORIKOA.....	9
3.1	Banku Mugikorraren Orokortasunak	9
3.2	Errendimenduaren faktore mugatzaileak	10
3.2.1	Faktore Fisiologikoak.....	10
3.2.2	Indarra Faktoreak.....	12
3.2.3	Aspektu Biomekanikoak	14
3.2.4	Alderdi Teknikoa.....	16
3.3	Ondorioak.....	18
4	INDAR LANAREN GARRANTZIA ARRAUNEAN	19
4.1	Indar Lanaren Helburuak.....	19
4.2	Entrenamenduaren kargaren kontrola.	22
4.3	Indarra Ebaluatzeko eta Kontrolatzeko Tresnak.....	23
4.4	Lortu Daitezkeen Datuak.....	26
4.5	Alde Onak	26
4.6	Alde Txarrak	26
5	IKERKETAREN METODOA	28
6	ESPAINIAR SELEKZIOKO INDAR LANAREN AZTERKETA.....	29
6.1	Denboraldiaren Antolakuntzaren Azterketa	29
6.2	Aztertutako Indar Entrenamenduak	30
7	INDAR LANA EBALUATZEKO ETA KONTROLATZEKO METODOA	38
7.1	Metodologia	38
7.1.1	Sentadiletako Distantzia.....	39
7.1.2	Exekuzio Bakoitzaren Abiadura	39
7.1.3	Ebaluazioa eta Kontrola Egiteko Metodoa.....	41
8	DATUEN EBALUAKETA.....	44
8.1	Datuen Azterketa	44
8.2	Kargen Doikuntza	47
9	EMAITZAK.....	53
10	ONDORIOAK	55
11	ETORKIZUNARI BEGIRA	58
12	ZER IKASI DUT.....	59

13	ETIKA ONARPENA	60
14	ERREFERENTZIAK.....	61
15.1	Irudiak.....	63
16	ERANSKINAK.....	64

1 Sarrera

Hurrengo lana egitera abiatu naiz, nire bizitza osoa arraunaren inguruan ibili naizelako eta beti ikusi izan dudalako hutsune handi bat indarra lantzerako orduan. Aurten Espainiako selekzioan praktikak egiteko aukera izanda, urte olinpikoan daudela jakinda, aukera paregabe ikusi nuen indarra lantzeko metodoak eta ebaluatzeko tresnak aztertzeko. Artikulu asko daude indarraren inguruan ikertu dutenak, baina, nola lantzen da indarra? Zer nolako tresnak erabiltzen dira indar ebaluatzeko edo neurtzeko? Nola erabiltzen dira tresna hauek? Galdera hauek argitzeko asmoz eta arraunaren entrenamenduaren inguruan gehiago ikasteko erabaki nuen gai honen inguruan ikertzea.

Ikerketa gehienetan ebaluatzeko tresnak oso zehazki jartzen dituzte, ikerketa nola egin duten, zenbat pertsoneri egin zaien eta azterketa horretatik zer nolako emaitzak eta ondorioak atera diren. Baina, ez dute azaltzen ebaluatzeko tresneria hori nola erabiltzen den edo eguneroko entrenamenduetan nola aplikatu daitezkeen .

Horregatik lan honen helburua praktikoagoa izan da. Espainiar selekzioan, gimnasioko indar lana nola landu eta kontrolatu egiten den aztertu nahi izan da urte olinpiko batean zehar. Indar lana modu objektibo batean neurtzeko eta indar lanaren prestakuntzaren metodologia ezagutzeko asmoz. Etorkizunean, beste prestatzaile batzuek informazio hau ezagutzeko eta erabiltzeko aukera izan dezaten.

2 Ikerketaren helburua

Arraunaren orokortasunak azaldu ostean, indarra arraunean duen eragina aztertzen da eta arlo honen inguruan informazio eta ikerketa asko dagoela ikusita, lan honetan, helburu praktikoago bat bilatu da, nazio mailako arraun selekzio bateko benetako indar-lanari buruzko ikerketa deskriptibo bat eginez, ikerketaren helburuak hurrengoak izanik:

- 1- Espainiako arrauneko selekzioak, gimnasioko indar lana nola kontrolatzen eta ebaluatzen duten azaltzea, aztertzea eta ebaluatzea.
- 2- Indar entrenamenduak modu zientifiko batekin kontrolatzeko modua aztertzea.
- 3- Erabiltzen duten tresnak eta metodologia ezagutzea eta aztertzea.
- 4- Beste entrenatzaile batzuentzako erabilgarria izan daitekeen tresna metodologiko bat erakustea.

3 Marko teorikoa

3.1 Banku mugikorraren orokortasunak

Gizakia duela urte asko nabigatzen hasi zen, hasieran, naturak ematen zituen materialarekin: enborrak, larru azalak ...; hasiera horretan egiten zituzten ontziak besoekin eta hankekin inpulsetan ziren eta ondoren makilekin, arraunekin eta belekin egiten hasi ziren. Nahiz eta arraunaren lehenengo erregistroak duela 5000 urte izan, mende bat lehenago arraunak indarra hartzen hasi ziren enpresa militar eta komertzialetan, Dodd-ek (1992) adierazten duen moduan.

Hainbat lekutan, jendearen eta merkantzien garraioak arrauna kirol bihurtzearen errudunak izan ziren. Hala nola, 1715. urtean Londresen *Doggett's Coat and Badge Race* estropadaren lehenengo jardunaldia ospatu zen, gaur egun zaharrena den estropada alegia. 1793. urtean *Eton College*-k bere ikasleentzako arrauneko kurtsuak antolatu zituen eta beranduago 1815. urtean Oxford unibertsitateak antolatu zituen. Modu honetan, arrauna kirol bereizlea bilakatuz joan zen eta bere praktika eskoletan eta unibertsitateetan hedatuz eta hauen norgehiagoka akademikoa kirol arlora hedatuz, 1829-an Oxford eta Cambridge arteko estropada akademiko famatua sortu zen arte (Mallory, 2011).

Bestalde, hasieran, arraunlaria ontziaren egiturari finkaturik zegoen eta tosta finko baten gainean esertzen zen. Arraun egiteko modu hau "tostako arrauna" deitua, arraun egiteko modu bakarra zen, XIX. mendean garapen teknologiko eta industrialak 4 berrikuntza ahalbidetu zien arte. Berrikuntza honek arrauna barkutik kanpo eraman ahal izatea, barnealdeko gila kanpo aldekoagatik aldatzea, banku mugikorra tosta finkoagatik aldatzea eta biratu zezakeen toleta edo txumazera baten kokapenak ahalbidetu zituen (Dodd, 1992).

Banku mugikorraren modalitatea, kirol olinpikoa izan zen garai modernoko Joko Olinpikoak sortu zirenetik, 1896. urtean arrauneko Federazio Internazionalak (FISA) 11 modalitate ofizial edukita.

Hala ere, emakumezkoen maila ez zen 1974. urtera arte mundu mailan sartu eta Joko Olinpikoetan 1974-ra arte. Bestalde, 1975. urtean pisu gutxiko

arraunlarien bereizketak hasi ziren egiten txapelketetan maila desberdinetan kokatuz (gizonezkoetan, gehienez bataz besteko pisua 70 kg izanik eta 1983. urtean, 57 kg emakumezkoetan) (Aramendi, 2014).

Amaitzeko lanean zehar ontzi mota desberdinak agertuko direnez, *Remo Olimpico y Remo Tradicional (2014)* idazlanak eratorritako hurrengo taula txertatu da, ontzi desberdinen izenak eta ezaugarri desberdinak adierazteko.

Ontzi bakoitzeko ezaugarriak: luzera maximoa, pisua, estropadaren distantzia, arraun kopurua eta arraunlari kopurua.

1. Taula. Gonzalez Aramendiren baimenarekin, *Remo olímpico y remo tradicional: Aspectos Biomecánicos, artikulutik egokitua*

Embarcación	Eslora Máxima (M)	Peso mínimo (Kg)	Distancia de regata (M)	Remos por remero	Tripulación
Remo de banco móvil					
Skiff (1x)	8,2	14,0	2.000	2	1 remero
Doble scull (2x)	10,4	27,0	2.000	2	2 remeros
Cuatro scull sin timonel (4x-)	13,4	52,0	2.000	2	4 remeros
Cuatro scull con timonel (4x+)	13,4	53,0	2.000	2	4 remeros + t.
Ocho scull con timonel (8x+)	18,9 – 19,9	98,0	2.000	2	8 remeros + t.
Dos sin timonel (2-)	10,4	27,0	2.000	1	2 remeros
Dos con timonel (2+)	10,7	32,0	2.000	1	2 remeros + t.
Cuatro sin timonel (4-)	13,4	50,0	2.000	1	4 remeros
Cuatro con timonel (4+)	13,7	51,0	2.000	1	4 remeros + t.
Ocho con timonel (8+)	18,9 – 19,9	96,0	2.000	1	8 remeros + t.

t: timonel.

3.2 Errendimenduaren faktore mugatzaileak

3.2.1 Faktore Fisiologikoak


Roth-ek (1993), *International Journal of Sports Medicine* aldizkarirako egindako ikerketa batean, neurketa metaboliko eta biopsia muskularrak egin ostean, aztertu egin zuen 7 minutuko frogan lortutako energiaren %67-a bide aerobikotik zetorrela eta beste %33-a bide anaerobikotik (%21-a metabolismo anaerobiko alaktikotik izanda eta %12-a laktikotik).

Hortaz, Arraun olinpikoan 7' inguru irauten duten 2000m-ko lasterketetan izandako faktore mugatzaileen artean, honako hauek nabarmentzen dira: ahalmen aerobikoa, potentzia aerobikoa, ahalmen anaerobikoa eta potentzia anaerobikoa. (Pierna, Adad Carabaza eta Sancho, 2008).

Izan ere, aurkitutako hainbat ikerketetan ikus daiteke nola oxigenoren kontsumo oso altuak ematen diren eta arraunlariak estropada osoan zehar

laktato balore oso altuak jasaten dituzten, amaieran azidosi maila oso altuak jasan arte.

Vo₂ Max, lortzen den abiadura edo potentzia anaerobikoari deritza eta Vo₂ Maximoaren eta arrauneko errendimenduaren arteko korrelazioa oso positiboa zela aztertu zuten Secher-ek, Vaagek, eta beste batzuek (1976), aldagarri honen eta Eskadinabiako arraunlarien sailkapena bat egiten zuela aztertu eta gero. Hurrengo irudian ikus daitekeen bezala: (Pierna eta Adad et al., 2008).



1. Irudia. Oxigeno kontsumo maximoa eta 1971-ko Europako txapelketako sailkapena. Secher, Vaage y Jacson utzia (1976) Pierna eta Adad et al. (2008)

Ahulki mugikorreko errendimendurako hain garrantzitsua den Vo₂-aren erlazio hau, Concept II ergometroan ere aztertu egin da, 2000m-ko frogan aztertu zuten alde batetik Cosgrove-k (1999) eta bestetik, Kennedy-k eta Bell-ek (2000), bi lanen korrelazioa positiboa izanda.

Voliantis-ek eta Secher-ek (1993), egindako artikuluan adierazten dute, arrauneko lehiaketetan 6,9 l/min oxigeno kontsumo maximoko baloreak ematen direla.

Bestalde, metabolismo anaerobikoa ere ezinbestekoa da lehiaketetan, Henning Nielsen-ek, Boushel-ek, Madsen-ek eta Secher-ek (1999) 32 mmol/l-ko laktato kontzentrazio plasmatikoa, 6,7416 pH-arekin aurkitu zuten egindako ikerketan eta batzuek baloreak 15 eta 17 mmol/lak zirela ikusi zuten, banku mugikorreko hainbat estropada aztertu ostean.

Gainera, arraunlariak arnasketa ahalmen oso ona izaten dute, 270 l/min-ko biriken aireztapen erregistroekin. Horretaz aparte, ahalmen kardiako oso altuekin ibiltzen dira, gastu kardiako oso altuak ahalbidetzen dituztenak alegia (30-40 l/min). Kirol honetan normalean, oso frekuentzia kardiako altuetan lan egiten da, pultsazio maximoetatik gertu eta presio arterial sistoleko piko altuetan (200 mm Hg 23) eta presio eta bolumen altuko lan honek, azaldu egiten du arraunlarietan askotan aurkitzen diren eskuin bentrikuluko hazkundeak. (Bartram, et al., 1998)

3.2.2 Indarra Faktoreak

Nesser-ek, Huang-ek eta Jeffrey-k (2007) osaturiko taldeak, arraunean egiten den indarra eta potentzia aztertzeko lan bat egin zuten. Ikerketa honen helburua zen, 2000m-ko arrauneko estropada batean, zeintzuk izan zitezkeen errendimenduaren iragarpenerako aldagarriak aurkitzea, zenbait ezaugarri fisiologiko aztertuz.

Mailakatutako erregresio azterketa baten ostean, ikusi egin zuten, arraunlarien altuerak errendimenduan eragin gehien duen ezaugarria dela ($p=0,05$; $r^2=0,70$). Honek nabarmentzen du Shephard-ek eta Astrand-ek (1992) esandakoa; hots, arraunlarien altuera garaipenerako ezinbestekoa dela arraunkada bakoitzaren anplitudea handiagoa delako. Bourgolis eta beste batzuk (2001) ere, konturatu egin ziren, arraunlari gazteen mundu mailako txapelketan, finalera sartu ziren arraunlariak, sartu ez zirenak baino altuagoak zirela.

Identifikatutako bigarren ezaugarria, sentadilako ariketa izan zen. Ariketa hau beheko gorputz adarraren indarra ebaluatzeko erabili zen, arraunaren mugimenduarekin duen antzekotasunagatik alegia. Jensen-ek eta beste batzuek (1996), behatu zuten hanken exentzioaren eta 2000m-ko potentziaren arteko korrelazioa zegoela. Hagerman-ek (1994) ere koadrizepsaren eta errendimenduaren arteko erlazioa aurkitu zuen, hankek paladan zehar egiten duten potentzia dela eta.

Jauzi bertikala ere erabili ziren beheko atalaren potentzia neurtzeko. Yoshiga-k eta Higuchi-k (2006) 2000m-ko froga egin zizkieten ergometroan 332 (21+-2 urteko) gazteei, froga horiek ere hanken luzapen bilateralek arraunaren errendimenduan duten garrantzia frogatuz.

Beraz, ikerketa horiek egiaztatu egiten zuten hanken indarra ezinbestekoa dela arraunaren errendimendurako.

Gayer-ek (1994), ostera, potentzia pikoak, arraunlari arrakastatsuak identifika zezakeela adierazi zuen. Hau frogatzeko, emakumeei egindako 2000m denbora iragarri zuen %75,7 batean, aurretik egindako *Wingate* testean lortutako potentzia batz bestekotik (Riechman et al., 2002).


Errendimendua aztertzeko beste aldagaietako bat pisua da. Adinbat azterketa daude honen inguruan, hala nola, Russell-ek eta beste batzuek (1998) buruturikoa, non arrauneko errendimenduaren indarra, metaboliko eta antropometriko alderdiak ikertu baitzituzten 2000 m-ko frogarekin. Artikulu honetan, Russell eta bere taldekideek, egiaztatu zuten, gorputz masa 2000 m-tan egindako denborarekin erlazionatzen zela ($r = -0,41$). Beste hainbat ikerketak adierazi dute, Open Class mailako arraunlari gehienak, altuak eta argalak zirela eta gorpuzkera gihartsuak zituztela.

Etzandako arraunaren ariketa, bizkarraren goiko ataleko indarra neurtzeko erabili da, eta nahiz eta ikerketa batzuetan korrelazioa txikia aurkitu, korrelazioa dago, bizkarra arraunean garrantzi handia izanik, baina kontuan eduki behar da, hankek askoz ere indar handiagoa egiten dutela arraun mota honetan behintzat.

Klneshnev-ek (2004) zenbait tresnekin gorputzeko atal nagusiak neurtu zituen bakoitzean zenbateko portzentajea erabiltzen den jakiteko asmoz eta emaitzak hurrengoak izanda:

- Hankek, beharrezko potentziaren ia erdia eskaintzen dute %46-a.
- Gorputz enborrak, %32-a.
- Besoek, %22-a.

Hanken, gorputzaren eta besoien abiadura linealen grafikoa, zenbait dispositiboekin neurtuak.



2. Irudia. Kleshnev V-ren baimenarekin, *Biomechanics of rowing biomechanics Technology an Technique*, (2004) liburutik egokitua.

Azaldutakoarekin ikus daiteke 3 indar mota eragiten dutela arraunean: alde batetik, oinek egiten dutena, ondoren, arraunlaria hasierako indar hori arraunean transferitzen duenean eta amaitzeko, besoekin mugimendua bukatzen duenean, azken hau, aurretik hankek eta gorputzak dakarte azelerazioagatik baldintzaturik egonez (Baudouin eta Hawkins, 2002).

3.2.3 Aspektu biomekanikoak

Arraunaren errendimendua ontziaren abiadurak zehaztuko du, beraz, abiaduran eragiten duten aspektu desberdinak asko ikertu dira: bai fisiologikoak, bai ontziaren aspektu hidrodinamikoak, baita arraunlariren eta ontzirenak.

Kirol zikliko honetan, arraunkadaren zikloa etengabe errepikatzen da eta ziklo bakoitza bi fase nagusietan banatzen da:

- Inpultso fasea edo palada
- Errekuperazio fasea.

Secher-ek (1993) dion bezala, arraunketa erlazioa egokia izan dezan, arraunkada bakoitzeko ziklo bakoitzak, segundo bat baino gutxiago iraun beharko lukeela eta inpultso fasea berreskurapenaren fasearen iraupen herena izan beharko lukeela.

Ziklo honetan zehar ontziaren abiadura ez da konstantea, azken finean palada bakoitzari kontra egiten dioten faktore asko baititu eta faktore hauek batuz besteko abiaduran eragin zuzena izaten dute.


Hortaz, argi dago ontziak uraren gainean duen marruskadura eta airearena, gainditu beharreko erresistentziak direla: gutxi gora behera, uraren erresistentzia %85-a izanik eta airearena %15-a (Notle, 2011).

Urarekiko erresistentzia, ontzi abiaduraren karratuaren proportzionala da eta $R = a \cdot v^2$ bezala adierazi daiteke, non v^2 abiaduraren karratua den eta (a) ontziko kaskoaren gainazal bustiari eta formari egiten dion erreferentzia (Notle, 2011).

Abiadura mantentzeko aplikaturiko indarra, jasotako erresistentziaren berdina izan beharko luke, beraz, beharrezko batuz besteko potentzia $P = a \cdot v^3$ izan beharko litzateke. Hortaz, ikus daiteke potentzia bikoiztekotan abiadura 1,26 aldiz ($21/3$) igotzen dela eta ostera abiadura bikoizteko potentzia 8 aldiz igo beharra dagoela (Notle, 2011).

Guzti honen ondorioz, arraunak bigarren mailako palanka bat bezala funtzionatzen du, erresistentzia ontzia izanik, bermatze puntua ura eta erresistentzia mugitzeko indarra arraunlariak arraunean eginez.

Indarra eta indar momentuak, arraunaren tibortan edota txumazeran neurtzen dira eta indar/abiadura eta indarra arku horizontalaren grafikoek, arraun teknika egokiaren adierazlerik egokienak dira (Notle, 2011).



3. Irudia , arraunaren palankak. Irudi propioa (2016).

Ontziaren neurriari dagokienez, ontziaren hainbat atal mugitu daitezke arraunlariari egokitzeko, bai neurri antropometrikoei, baita pisuari, indarrari, malgutasunari eta arraun egiteko erari egokitzeko. Beraz, faktore biomekaniko hau ezinbestekoa da ondo kudeatzea, ontzia ahalik eta bizkorren ibiltzeko.

3.2.4 Alderdi teknikoa

Teknika, beste faktore mugatzaileetako bat da, arraunkada bakoitzean orden bat mantendu behar delako, lehen aipatu den aireko fasearen eta inpultsu fasearen erlazio egokia mantenduz, indar guztiak noranzko egokian joan daitezzen.


Hurrengo irudian arraunaren fase desberdinak ematen dira:

1. Kontaktu fasea; Arrauna sartzeko fasea.
2. Eraso fasea: lehenengo indar momentua.
3. Pasadako fasea.
4. Amaierako fasea; arraunak berehala uretatik ateraz.
5. Berreskurapen fasea; hasierako puntura bueltatzeko.




4. Irudia. Expert Rowing Club (2008) aldizkaritik egokitua.


Honekin jarraituz, indar fase bakoitzean gihar talde desberdinak erabiliko dira S.D.R Pedreñako klubak, Kantabriako gobernuarentzako (2010) egindako unitate didaktikoan begi-bistaz ikusten den moduan:




2. PASADA.



1. Ataque.



3. Final.



4. RECUPERACIÓN.

5. Irudia. Arrauneko fase bakoitzean inplikaturiko giharrak. S.D.R Pedreñak egindako unitate didaktikotik egokitua.

Kontuan izan behar da, arraunlariaren helburua ontzia 2000 metrotan ahalik eta azkarren desplazatzea dela, eta honek, indarraren produkzioaren ezagutza zehatz bat behar du, azken finean 2000 errepikapen berdineko lehiaketak dira, non errepikapen bakoitzean ahalik eta indar gehien aplikatu behar den. Beti ere, anplitude gehiengan eta arraunkada bakoitzaren efizientzia lortuz, ontzia ahalik eta azkarren desplazatu dadin (Blazevich, 2010).

Beraz, arraunkada bakoitzaren efizientzia lortzeko, uretako fasearen denbora murriztu beharra dago, arraunkada bakoitzean indar gehiago aplikatuz eta ontzia uretan azkarrago mugitzeak arraunkaden kadentzia handitzea ahalbidetuz, hau da, minutu bakoitzean palada kopuru gehiago ematea lortuz (Blazevich, 2010).

Koordinazio aldetik arraunean bi motatakoak ematen dira, hau da, alde batetik norberarekiko intermotrizitatea behar da (pertsona bat baino gehiagoko ontzietan) taldekideekin bat egiteko eta norberaren gorputzarekiko koordinazioa arraunkadaren faseen ordena mantentzeko (Arámburu eta Rivarola, 2011).

Kontuan izan da arraunlariaren helburua ontzia 2000 metrotan ahalik eta azkarren desplazatzea dela. Honek, indarraren produkzioaren ezagutza zehatz bat behar du, azken finean 200 errepikapen berdineko lehiaketak dira, non errepikapen bakoitzean ahalik eta indar gehien aplikatu behar den, beti ere anplitude gehienez eta arraunkada bakoitzaren efizientzia lortuz, ontzia ahalik eta azkarren desplazatzeko (Blazevich, 2010).

Arraunean efizientzia, aplikatzen den potentzia mekaniko totalaren eta beharrezkoa den energia kontsumoaren erlazioa da. Hortaz, arraunkada bakoitzaren efizientzia lortzeko teknika egokia izateko: aireko fasearen eta uretako fasearen erlazioa ondo kontrolatzea eta erlazio hau mantenduz, ahalik eta kadentzia altuena eramatea beharrezkoa da. Horretarako, uretako fasearen denbora murriztu beharra dago arraunkada bakoitzean indar gehiago aplikatuz. Hots, arraunkada bakoitzean indar gehiago egin behar da (Blazevich, 2010).

3.3 Ondorioak

Faktore mugatzaileak aztertzen baditugu, ikus daiteke arraun olinpikoa, ahalmen anaerobikoa Vo_2 max, laktatoari tolerantzia, indarra eta arraunlariaren tamainagatik baldintzatuta dagoen kirol bat dela. Gainera, teknikak, koordinazioak eta aspektu biomekanikoak funtzio erabakigarria daukate ontziaren errendimenduan.

Gainera, ikus daitekeenez nahiz eta faktore mugatzaileak asko izan garrantzitsuena ontzia arraunkada bakoitzean ahalik eta metro gehien desplazatzea da, eta hau lortzeko arraunkada bakoitzean ahalik eta indarra gehien aplikatu beharra dagoela. Horregatik, lan honetan indarraren inguruan gehiago sakonduko da.

4 Indar lanaren garrantzia arraunean

4.1 Indar lanaren helburuak

Siff-ek eta Verkhosdansky-k (2000) azaltzen dute, urte askotan zehar arrauneko indar osagarriari buruzko bi teoria egon direla. Alde batetik, kirol mugimenduak ahalik eta gehien imitatzea proposatzen duena hau da, kirol keinuan erabilitako mugimendua, abiadura, giharreria erabiltzen dituen. Eta bestetik, espezifikotasun gutxiago duen indar entrenamendua, inplikaturiko giharreria landuz baina espezifikotasun gutxiagorekin, ondoren, arraun teknika lantzerakoan, indar inespezifiko hori espezifikoan bihurtzeko asmoarekin.

Hainbat ikerketak sostengatzen dutenez, bi entrenamendu motek hobekuntzak lortzen dituzte errendimenduan, baina, gaur eguneko ikerketa zientifikoek espezifitatearen printzipioa nabarmentzen dute.

Indarra baldintzatzen duten faktoreen artean, Forteza-k (1999) aipatzen dituen moduan, honako hauek aurkitzen dira:

- *Zuntz mota*
- *Zuntzen ordena fusiformeak eta peniformeak*
- *Hipertrofia muskularra*
- *Koordinazio intra eta inter muskularra*
- *Besoen luzera eta palankak*
- *Muskuluak jasaten dituen inpultso nerbiosoen maiztasuna*
- *Giharraren egoera fisiologikoa eta luzera.*
- *Kitzikapen emozionala*
- *Apnea boluntarioak eta nahigabekoak*
- *Hormonen influentzia*
- *Elikadura*
- *Entrenamendua*
- *Tenperatura*
- *Lo orduak*
- *Adina eta sexua*
- *Pisu-indar erlazioa*

Aztertutako ikertzaile gehienek baldintza faktore berdinak adierazten dituzte, baina kirol honetan indarrak agertzeko modua ezagutzea ezinbestekoa da: indar maximoa, indar abiadura, indar lehegarria eta indar erresistentzia, azken hau garrantzi handiena hartuz mantendu behar den denboragatik, baina besteak alde batera utzi gabe (Forteza, 1999).

Indarra arrauneko lehiaketarako ezinbestekoa dela kontuan izanik, oso garrantzitsua da zehaztea zenbat indar behar den. Zeren eta, behin arraunlari batek indar nahikoa lortzen duenean, garrantzitsuagoa delako indar hori uretara transferitzeko denbora inbertitzea. Azken finean, uretan indar espezifikoa, potentzia, ahalmen aerobikoa eta teknika landu egiten baitira batera, Sandler-ek, McNeely-k eta Bamel-ek (2005) ikertu zuten bezala.

Indarra bi modutan sailkatu daiteke: absolutua eta erlatiboa. Indar absolutua, behin altxatu daitekeen pisua izanik eta normalean gorpuzkera handia daukaten pertsonen indar absolutu handiagoa izaten dute, masa muskular gehiago izaten baitute. Eta bestalde, indar erlatiboa, behin altxatu daitekeen pisua, gorputz pisuarekin erlazioatzean lortzen dena, arraunlariarentzako indar mota hau garrantzitsuagoa izanik, indar absolutua baino, arraunlariaren pisuak (urarekiko erresistentzia areagotuz) ontziaren desplazamendua moteltzen baitu (Sandler et al. 2005).

Beraz, indar absolutuaren irabaziak ez du abiadura hobetuko indar erlatiboa (indarra/gorputz masa) hobetzen ez bada. Indarra erlatiboaren koizientearen handitzeak, arraunkada bakoitzean ontzia errazago azeleratzea ahalbidetuz (Sandler et al. 2005).

Indar erlatiboaren garrantzia ikusita, orain arte aztertu dugun artikulua berean, Sandler-ek eta beste batzuek (2005) egin zituzten taula batzuk non, 10 urtetan zehar lortutako datuekin, indar entrenamendurako helburuak, gorputz pisua kontuan izanik, adierazten diren.

Taula hauek sortzeko, adin eta maila desberdinetako goi mailako arraunlariak erabili zituzten eta taulek hiru ariketetan lortu zituzten batzuek besteko baloreak adierazten dituzte.

1. Taula. Gizonezko arraunlarien pisuarekiko indar erlatiboa, errendimendu maila desberdinetan. Sandler et al., (2005) ikerketatik egokitua.

	Colegio Secundario (n = 154)	U23 (n = 91)	Local (n = 103)	Nacional (n = 40)	Olímpico (n = 26)
Sentadilla	1.0	1.3	1.4	1.7	1.9
Peso Muerto	1.0	1.3	1.4	1.7	1.9
Remo Acostado	0.7	0.9	1.05	1.2	1.3

1. Taula. Emakumezko arraunlarien pisuarekiko indar erlatiboa, errendimendu maila desberdinetan. Sandler et al., (2005) ikerketatik egokitua

	Colegio Secundario (n = 154)	U23 (n = 91)	Local (n = 103)	Nacional (n = 40)	Olímpico (n = 26)
Sentadilla	1.0	1.0	1.25	1.4	1.6
Peso Muerto	0.8	1.0	1.25	1.	1.6
Remo Acostado	0.6	0.8	0.95	1.1	1.2

2. Taula. Gizonezko "Master" mailako Indar pisuarekiko erlatiboa F (n = 88).Sandler et al., (2005) ikerketatik egokitua

Edad	35-39	40-44	45-49	50-54	55-59	60-64	65-69	+70
Sentadilla	1.37	1.30	1.2	1.15	1.03	0.95	0.82	0.60
Peso Muerto	1.37	1.3	1.2	1.15	1.03	0.95	0.82	0.60
Remo Acostado	1.02	0.98	0.94	0.88	0.78	0.71	0.62	0.45

3. Taula. "Master" mailako Indar pisuarekiko erlatiboa F (n = 88). (n = 60).Sandler et al., (2005) ikerketatik egokitua

Edad	35-39	40-44	45-49	50-54	55-59	60-64	65-69	+70
Sentadilla	1.22	1.16	1.08	1.00	0.91	0.80	0.72	0.50
Peso Muerto	1.22	1.16	1.08	1.00	0.91	0.80	0.72	0.50
Remo Acostado	0.93	0.88	0.82	0.76	0.69	0.60	0.55	0.38

Autore hauek adierazten dute behin tauletan adierazten diren indar parametroetara heltzen direnean, orduan hasi beharko liriatekeela, lehiaketarako prestatzen, entrenamendu espezifikoa eginez. Indar espezifikoa uretan lantzeko hainbat metodo daude, hala nola, ontziari erresistentzia jarriz banda batekin ontzia inguratuz, kupel bat arrastatuz..., metodo hauetaz aparte, kontuan izan behar da indar lana uretan lantzean, zenbat eta erritmo maiztasun baxuagoa eraman orduan eta indar gehiago egin behar dela arraunkada bakoitzean (Sandler et al., 2005).

4.2 Entrenamenduaren kargaren kontrola.

Entrenamenduaren jarduerak sortzen duten eskakizun psikologiko eta biologikoak, karga bezala ulertzen dira, jarduera hauek akidura sortu egiten dute, aldaketa fisiologikoak eta aldaketak oreka homeostasikoan sortzen dituzte. Entrenamendua sortzean karga kontuan eduki behar da, honek beharrezkoak diren moldaketa fisiko, biokimiko, morfologiko eta funtzionalak eragin ditzan (Badillo eta Serna, 2005).

Beraz, entrenatzaile batek zehaztu dituen helburuetara hurbildu nahi izanez gero, kargaren kontrola osoa izan beharko luke, bai proposaturiko kargarena, baita benetan ematen den kargarena, hau lortzeko ezinbestekoa da entrenamenduaren kontrola izatea, kargen neurketa eta kuantifikazio metodo baliagarriak ezarriz. Bakarrik honela lortuko baita entrenamendu metodologia on bat (Ballido eta Serna, 2005).

Bestalde, indarraren kontrolarekin nerbio sistemaren kontrola egiten daiteke, Medinak, Ballido-k, Pérez-ek eta Pallarés-ek (2011) dioten bezala, nerbio-sistema akituta dagoenean, honek egiten duen zuntzen erreklutamendua akiduragatik eraginda aurkitzen da eta exekuzio abiaduran eta altxatutako kargan adierazi egiten da.

Horregatik, entrenamenduaren karga ongi kontrolatzeaz gainera, ezinbestekoa da indibidualizazioaren kontrola edukitzea kirolari guztiekin, azken finean, kirolari guztiek ez dute karga berdina modu berean jasotzen eta hau kudeatzea eta kontrolatzea beharrezkoa da.

Hau guztiarekin, adierazi nahi da entrenamenduaren ariketak etengabe moldatu beharko liratekeela pertsonaren edo bakoitzaren errendimendu momentuaren arabera (Badillo eta Serna, 2005).

Pérez-ek (2012) aztertu zuen moduan, tekniko askori falta zaien lana, kargen dosifikazioa lehiaketan beharrei ongi egokitzea eta indar lanean erabiltzen diren ariketak arraun mugimenduaren estrukturari ongi moldatzen da.

Horregatik, lan honetan indarraren kontrol handiago bat lortzeko, karga ongi kontrolatzeko eta hauek moldatzeko, *encoder* baten laguntza erabili da

indar entrenamendu bakoitza zehatzagoa, indibidualizatuagoa eta arraunean behar den indarra ahalik eta modurik espezifikoenean lantzeko.

4.3 Indarra ebaluatzeko eta kontrolatzeko tresnak

Indarra ebaluatzeko eta kontrolatzeko, hurrengo banaketa egin daiteke: alde batetik, metodo objektiboak eta bestetik subjektiboak. Metodo subjektiboen artean teknika zuzentzeko eta exekuzioa ebaluatzeko begi bistako metodoa dago, entrenatzaile edo prestatzaileak ariketa begiratu egiten du eta beharrezko zuzenketak egiten ditu.

Bestetik, metodo objektiboak agertuz joan dira eta gaur egun mugikorrean eduki daitezkeen aplikazio biomekanikoekin, bideoak grabatuz edota argazkiak ateraz, arraunlarien teknika momentuan aztertu daiteke ariketa egiten duten bitartean.

Gainera, karga kuantifikatzeko, RM (errepikapen maximoa) edo RM-aren estimazioak erabiltzen dira, baina azken urteetan tresna berri baten erabilera areagotuz joan da, hurrengo pasartean sakonki azalduko den *encoder* lineala alegia, egin den indarraren kontrolaren ikerketan tresna nagusia izan dena.

Encoder lineala, dinamometro bat da, kirol testu inguru batean ezaguna den karga baten ibilbidea espazio-denboran modu zuzen eta jarrai batean neurtzeko erabiltzen dena. Tresna honek indar lana ebaluatzeko eta entrenatzeko ezinbestekoak diren potentzia, lan mekanikoa, indarra, abiadura, azelerazioa eta beste zenbait aldagai ematen ditu. Errepikapen batean, kargari lotuta dagoen kablearen ibilbidea eta distantzia hori burutzeko denbora neurtuz (Badillo eta Medina, 2010; Sant, 2005).


6. Irudian ikusten den bezala, *encoder-ra* kanpoko kargari loturik doa (barrari), hari batez, beti bertikalean egiten delarik. Hariak kargaren posizioaren informazioa eman egiten du 0.2mm-ko bereizmenarekin eta 1000 Hz-ko maiztasunarekin (Badillo eta Sernar, 2002).



6. Irudia. Espainiar selekzioko arraunlaria etzandako arraunean *encoder-rarekin*.


Encoder linealaren neurketa akatsaren tartea oso baxua da, akatsa %0-koa izanik angelu deribaziorik eduki ezean, 5° -ko deribazioa edukitzekotan %0,38-a eta 10° -koa izatekotan %1,5-koa (T-Force), datu hauek zehaztaper handiko tresna bilakaturik eta entrenatzailearentzako oso erabilgarria bihurtuz (Badillo eta Serna, 2002).

Aparatu hau, indarra ebaluatzeko eta kontrolatzeko metodo berri bezala sortu zen, RM (errepikapen maximoa) testetik aldentuta baita akidurarainoko esfortzuetatik, izan ere, tresna honek errepikapen bakoitzaren abiadura erabiltzen du errendimendu adierazle gisa. Neurtzeko bi metodoak alderatzekotan (*encoder* eta RM), lehengoak datu gehiago, zehatzagoak, baliagarriagoak eta fidagarriagoak ematen ditu; gainera, lesionatzeko aukerak, estres fisiologikoa eta ebaluatzeko denbora murrizten ditu (Badillo eta Serna, 2002).



7. Irudia. Pisu-abiaduraren kurbaren analisia *encoder* linealaren bitartez. Badillo eta Sernaren (2002) artikulutik egokitua.

Instrumentu honek ematen dituen datuak, marka bakoitzak duen software baten bitartez bildu eta aztertzen dira, gure kasuan *Fit Rolyne Premium* softwarea erabili da, datuak lortzeko.



8. Irudia. *Fit Rolyne premium* programa. Irudi propioa (2016)

4.4 Lortu daitezkeen datuak:

- Abiadura: momentukoa / batz bestekoa / Maximoa.
- Azelerazioa, momentukoa/bataz bestekoa / Maximoa
- INDAR maximoa / momentukoa / bataz bestekoa
- RFD (Indarra denbora unitateko).
- Potentzia Maximoa/bataz bestekoa
- Abiadura maximoa lortzeko denbora
- Azelerazio maximoa lortzeko denbora
- Igarotako distantzia
- Grafikoak (indar-abiadura, indar-potentzia, R_m estimazioa, eta abar.).

Alde onak eta txarrak (Badillo eta Medina, 2010; Badillo et al. 2014)

4.5 Alde onak

- Kalitate eta erabilgarritasun altuko datu asko ematen ditu
- Zehaztasun eta fidagarritasun handia daukate
- Ez dira karga maximorik behar indarra ebaluatzeko
- Datuak biltzeko eta aztertzeko Softwarea daukate
- Gehiengoak ikerketa zientifikoetan balioztatuta daude
- Azken urteetan indarraren ikerketa zientifiko askotan erabili dira

4.6 Alde txarrak

- Garestia da (1000 euro inguru)
- Neurtzeko protokolo egokia ezartzea beharrezkoa da
- Kablearen eta tresnaren hauskortasun altua
- Kableak mugimendu traketsak jasaten baditu ariketa egiterakoan ez du exekuzioa ongi neurtzen.

Encoder-ra azken finean, batez ere oso tresna baliogarria da momentuan ebaluatzen ari den ariketa ebaluatzeko eta kontrolatzeko, ordenagailu baten bitartez exekuzio bakoitzaren abiadura ikus daitekeelako. Honek arraunlariari momentuan altxaldi bakoitzaren feedbacka ahalbidetzen dio, eta kargaren kontrola momentuan aztertu daiteke.

Marko teorikoan aztertutako artikuluak landu ostean, eta indarrari eta arrauneko indar entrenamenduari buruzko artikuluak aztertu eta gero, ikusi ahal izan da indarrari buruzko ikerketa asko daudela. Ikerketa horiek datu asko ematen dituzte eta ondorio baliogarriak sortu dituzte, baina hutsune handi bat ikusi ahal izan da, eguneroko indar lanaren praktikotasunean erabiltzen diren protokolo eta metodologiengatik inguruko artikuluetan. Azken finean ikerketa hauek ondorio zehatz bat bilatzen dute eta erabiltzen dituzten testak, protokoloak eta neurketak ondorio zehatz horretara bideraturik daude.

Horrexegatik helburuetan agertzen den bezala lan honetan egunerokotasunean ikusi dugun gabezia hori landu nahi izan da. Espainiar selekzioak erabiltzen duen gimnasioko indar lanaren metodologia azalduz.

5 Ikerketaren metodoa

Hurrengo ikerketa deskriptiboan, arrauneko Espainiar Selektzioak indar lana ebaluatzeko erabilitako metodologia eta tresnak aztertu dira. Ebaluaketa egiteko, maila eta sexu desberdineko 6 mailen azterketa egin da, 2015-2016 denboraldian zehar, 2 kontzentrazio faseetan banatuta: alde batetik, altueran egindako kontzentrazio batean (abenduan) Sierra Nevada-ko C.A.R-en eta bestetik, Sevilla-ko C.E.A.R-en (martxoan), 18 indar entrenamendu aztertuz.

Aztertzeko izan diren kirolariak, ondorengoak izan dira:

